

hausnartzen du Orangek. «Gutako asko geure erabakiz etorri ginen hona, hutsetik hasteko, edo dirua irabazteko, edo esperientzia berri baten bila. Gutako batzuk erreserbari ihes egiteko etorri ginen hona... Erreserbako isiltasunak, errepide ondoko herrietako, landa-eremuko komunitateetako isiltasun horrek berorrek, sutan den zure burmuinaren hotsa askozaz nabarmenagoa egiten du». Sutan den burmuina hiriko amerikar natiboak bizi duen disonantzia egoeraren isla da: bi munduren artean harrapatuta bizi da, indigena bata eta zuriek eraikitakoa bestea, eta bietan arrotz sentitzen da.

Nortasun indigena berreskuratu eta lantzen saiatzen dira nobelako pertsonaiak, hala ere. Hain zuzen, haiek denak Oaklanden gertatzekoa den *powwow* edo dantza eta musika uzartzen dituen zeremonia batera joatekoak dira liburua abiatzen denerako. Baina transmititu ez zaiei eta, aldi berean, kultura popular estatubatuarrek estereotipo bihurtu duen tradizio bat izanda, tokiz kanpo ikusten dute beren burua. Orangek *indiartu* hitza erabiltzen du egoera hori deskribatzeko: indiarrarena egiten saiatzen den natiboa, natiboa dela erakusteko. *Powwow*-an dantzari aritzekoa den Orvilek *iturakerialari* hitza topatzen du sarean, gauza bera adierazten duen kontzeptua. Arropa tradizionalak soinean, ispilu aurrean jartzen da «benetakoa den zer-bait, bere benetako nia, bere begi aurrean agertzearen zain... Garrantzitsua da indiarren antzera jantzi dadila eta dantza egin dezala, itxura besterik ez bada ere, denbora osoan iruzurti baten antzera sentitzen bada ere, mundu honetan indiarra izateko modu bakarra indiar baten antzera jokatzea baita».

Egiaren eta egiantzekotasunaren arteko tentsioa azalarazten dute Orvilen gogoetok; iraganarekin konektatu egin nahi du, bere kulturarekin bat egin, bere kultura biziarazi. Baina, aldi berean, ezin dio iruzurti bat sentitzeari eutsi, ez zaiolako iruditzen bere nortasuna indigena moduan aurkezten den horren barruan sartzen denik. Aitzitik, gainditu egiten du.

There There-k ez du hiriko amerikar natiboen nortasunari begira konponbiderik eskaintzen. Aitzitik, haren konplexutasuna eta hauskortasuna azaltzen digu, eta ariketa horretan Oaklanden historia berridazten du.

Erresistentzia aldarri

Irati Majuelo

Harriet editorialak udazkenerako aurkeztutako nobedade sortaren lagintzat har dezakegu *Joana Maiz*. Lehen begiratuan, komikiaren argumentuak nahiko simplea irudi dezake: castingez arduratzen den emakume gazte bati dokumental bat zuzentzeko aukera emanen diote lehen aldiz, jatorrizko egilea hil delako, baina haren seme diruzaleari aurre egin beharko dio, egileza bere izenean jarri nahi baitu. Era berean, Joanak castingean alboratutako pertsonaiekin osatu nahiko du lana, tartean, etxetik bota nahi duten andre aguretuarekin.

Hala ere, istorio horretan gaurkotasun handiko beste zenbait gai gurutzatzen dira, eta horiek dira komikiari balio erantsia ematen diotenak. Alde batetik, agerikoa da mundu zaharraren eta berria-

ren arteko talka, nahiko era diko-tomiko eta simbolikoan adierazten dena: baserria/kaleko etxea, lizarra/makina hondeztailea, emakume edadetua/gaztaroan ainguratutako semea. Gatazkaren amaiera ere bi bandoren arteko konfrontazioarekin adierazten da: herritarren eta Ertzaintzaren arteko borrokarekin, alegia.

Artearen merkantilizazioak eta



'Joana Maiz'

Gidoia: Yurre Ugarte. **Irudia:** Joseba Larrebek. **Argitaletxea:** Harriet.

egilezaren auziak ere badute lekurik komikian. Baina interes gehiago dauka, akaso, gurean behin baino gehiagotan errepikatzen den gaiak, honako honetan perspektiba zintzoago batetik kontatu denak: kanpotarren begiek Euskal Herriaren idealizazio exotikoa egiteko duten joera, eta euskaldunok gure burua munduan era horretan saltzeko dugun inertzia. Dokumentalaren jatorrizko gidoigile eta zuzendaria euskaldun batekin ezkonduko gizon ingelesa da, Euskal Herriko topikoekin osatutako historia pantailaratu nahi duena. Idealizazio horren historia gizon ausart, borrokalaria eta inportanteek osatzen dute, noski. Joanaren lagun-tzaile Mainerren esanetan, «gizonkote abenturazaleen genealogia» osatzen dutenak.

Finean, komikiaren muinean dagoen gaia da nola egin ihes kanpoko begirada horren aita ponte-kotzari eta nola egin aurre «gizon handien» idealizazio horri beste-lako errealtate batzuei ahotsa emanez. Ez da kasualitatea lan honetan agertzen diren emakumezko pertsonaia guztiak indarra eta erresistentzia izatea beren ezauga-

ri behinenak. Komikiaren protagonista diren bi antiheroiak bizitzako une erabakigarrietan daude: Joana lehen aldiz proiektu propio bat sortzeko ausardia biltzen ari da, eta Lauren bere amaren etxea edozeren gainetik defendatzeko prest dago. Hirugarren pertsonaia ere, Mainerrek, ziurtasuna eta ekiteko grina transmititzen dio etengabe Joanari, bere kontzientzia gorpuztzen duen pertsonaia bailitzan. Askok dute emakumezko pertsonaiek erresilientziatik: guttiz hautsi gabe erresistitzeko ahalmena, jatorrizko egoerara indarberrituta itzuliz.

Ezin da gauza bera esan gizonzko pertsonaiez, diruzaleak, egozentrismoak eta harrokeriak definitzen baititu oro har. Egia da orokorrean pertsonaia nahiko lauk suertatzen direla, ezaugarri bakar batekin definitzen baititu orokorrean, eta horrek lanaren osotasunari kalte egiten dio, pertsonaia nabardurak eta kontraesanak ezabatzen baititu. Hala ere, eskertzekoa da komikira emakumezko pertsonaia ausart eta indartsuak ekartzea, azken buruan, *Joana Maiz*-ek erresistentzia baitu aldarri.

Erroak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Adiskide batek liburu hau bi hitzetan deskribatzeko eskatuko balit, ipuin hunkigarria dela esango nioke. Baina hau egunkari serio bat da, eta iritziak ezin dira argudiatu gabe esan. Horregatik esango dut hamar atalez osatutako narrazio lineala dela, pertsonaia gutxiarekin osatutako trama bat aurkezten digula, eta soziala dei datekeen etiketarekin sailkatzeko modukoa dela.

Izan ere, protagonista, Herme, gizon jubilatu zahar samarra da, bihotzekoa izan zuenetik goizean goiz paseatzera irteten dena. Bere ibilbidean parke bat dago, eskola baten atarian, eta errutinak neskatok batekin egunero gurutzatzea eragiten du.

Honi guztiari gehitu iezaiozu Hermek arbolei ipuinak konta-

tzen dizkiela (bosten bat liburuan zehar), eskolako atezainak begitan hartuta duela, eta arrebak bizilagun alargunarekin enparejatuta nahi duela... Eta liburua erren muina azalduta gelditu da.

Kontakizunak elkarrizketa asko ditu –eritmoa ematen diotenak–, baina giro sosegatua pizten du irakurlearengan.

Berdin balio du irakurle-zale-tzen ari diren bakarlarientzako, zein ahoz gorako irakurketa maite dutenentzako.



'Iluneko argi'

Idazlea: Juan Kruz Igerabide. **Ilustratzailea:** Raquel Catalina. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

Liburugile bihurriak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bestiario guztiak bezala, irudiz eta testuz hornitutako katalogoa da liburu hau.

Bertan aurkituko ditugu hogeita hiru neskatoren erretratuak eta deskribaketak, ezker-eskuineko orrietan banatuta, adibideekin frogatzeko neskek ez direla, ez beti, ez guztiak, onak eta esanekoak. Aldarrikatzeko ezarritako estereotipozama horren orde, denetarik dagoela munduko neskatilen artean. Nola bestela?

Testuak irakurterrazak dira, marrazkiak ere haur literaturaren estetika daukate, eta tarteka egiten dituzten keinu zein bihurrikeriek ere, lehen hezkuntzako neska mutikoen irakurketarako direla adierazten dute (zaharra-goentzako ere bai, noski).

Hiru egileak literatura feministan esperientziadunak dira, eta nabaria da. Cameros eta De Blas elkarrekin aritu ziren *Marziprintinek ez du zorioneko galeperrik nahi* arrakastatsuan (Txalaparta, 2009), eta Larralde argentinarrak argitaratu berri du gaiarekin lotutako beste obra interesgarri hau: *150 libros y recursos TIC para abordar la Educación Sexual Integral* (Paidós, 2018).



'Bestiario sekretua: neskatila gaiztoak'

Idazlea: Gabriella Larralde. **Ilustratzailea:** Myriam Cameros. **Argitaletxea:** Denonartean.